

NANa IZAPIDETZEKO BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

BERRITZEKO

A) DATUAK ALDATU EZEAN

- **Aurreko NANa.**
- **NANa egiteko gaur egungo argazki bat.**
- **Indarrean dagoen tasa.**

B) DATUAK ALDATUZ GERO

- **Filiazio-datuak aldatuz gero: JAIOZTA-AGIRIA** (gehienez 6 hilabeteko balioa du).
- **Helbidea aldatuz gero: ERROLDATZE-ZIURTAGIRIA** (gehienez 3 hilabeteko balioa du).
- **NANerako gaur egungo argazki bat.**
- Aurreko NANa INDARREAN badago, DOAKOA da.
- Aurreko NANa IRAUNGITA badago, dagokion tasa ordaindu beharko da.

LAPURRETAGATIK EDO GALTZEAGATIK

- Aurrekoaren kopia da, beraz, ezin izango da daturik aldatu.
- **Indarrean dagoen tasa** ordaindu beharko da, kasua edozein dela ere, hau da, aurreko NANa indarrean edo iraungita dagoen kontuan hartu gabe. Aurreko NANak zuen indarraldi bera izango du, hiru hilabete baino gutxiago gelditzen ez bazaio edo iraungita ez badago, kasu horretan beste bat emango zaio.
- Datuak aldatzen badira, datuak aldatzeagatiko berritzeetan ordaintzen den tasa ordaindu beharko da.

LEHEN ALDIZ EGITEKO

- Adingabeen kasuan gurasoetako batek lagunduta joan beharko da. Guraso horrek NANa indarrean izan beharko du. (14 urtetik gorakoek beren kabuz egin dezakete izapidea).
- **JAIOZTA-AGIRIA eraman behar da, pasaportea lortzeko bakarrik dela adierazten duen ohar batekin** (gehienez 6 hilabeteko balioa izango du). Jaiotza-agiriak “inskribatutakoaren erregistro indibidualaren kode-pertsonala” badu, aipatutako oharra ez da beharrezkoa izango.
- **ERROLDATZE-ZIURTAGIRIA** (gehienez 3 hilabeteko balioa izango du)
- Guraso atzerritarrak dituzten Espainian jaiotako umeak badira, espainiar izateko eskubidea dutenak, erroldatze-ziurtagirian jaiotzatik espainiarrak direla adierazten duen oharra jarri beharko da; ohar horrek PRESUNTZIO HUTSAREN BALIOA izango du.
- NAZIONALITATEA dutenek Bizileku-txartela eta Espainiako agintariek atzerritar gisa emandako bestelako dokumentuak entregatu behar dituzte.
- Atzerrian bizi izan diren edo bizi diren ESPAINIARRAK, 92a baino lehen jaiotakoak badira, lehenengo identifikatu egin behar dira, eta Madrilek erantzun arte itxaron. ESPAINIAKO PASAPORTEA aurkeztu behar dute edo, Espainiako dokumentazioa erabili ez badute, BESTE NAZIONALITATE BATEKO PASAPORTEA eta nazionalitatea berreskuratzeko inskripzioa.
- **Gaur egungo argazki bat.**
- **Indarrean dagoen tasa.**

TASAK ORDAINTZETIK SALBUETSITA DAUDE HONAKO HAUEK: Familia ugariko kideak, baldin eta familia ugariaren liburu originala edo izapidea egingo zaion kidearen txartel indibiduala aurkezten badute.

OHARRA: Kontsultatu pasaportearen iraungipena, adinaren arabera.